

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure bezeroentzat eskaintza hobereena dela ziurtarazteko, hainbat metodo erabiliko ditugu. Batetik, iragarkiak egingo ditugu jende gaztea erakartzeko. Sare sozialetan argitaratuz esate baterako. Gainera, lehenego astea dohainik izango dute bezeroek aplikazioa nolakoa den, nola funtzionatzen duen, eta nola erabili jakin dezaten. Ondoren, geure aplikazioa erabiltzeak prezio bat izango du. Hontaz aparte, adituek baloratuko dituzte bezeroen arazoak. Hau da, aplikazio barruan dauden psikologoak adituak dira, EHUn azken urteetan graduatutakoak, eta analizatu eta baloratuko dituzte gure bezeroen kezkak.